# 535 ikasleek parte hartu dute Enprestatzen ekimenaren 18 jardunaldietan

- Jardunaldiak era positiboan baloratu dira bertan parte hartu duten irakasleengatik.

- ENPRESTATZEN ekimena unibertsitatez kanpoko ikasleei zuzendua dago eta baloreen bitartez lurraldearen errealitate sozio-ekonomikoaren ezagutza sustatzea du helburu.

---

**Donostia, 2013ko ekainaren 25ean.** Apirila eta ekaina bitartean Enprestatzen ekimenaren 18 jardunaldi burutu dira eta Gipuzkoako zentru ezberdinetako 535 ikasleek parte hartu dute. Jardunaldiak Gipuzkoako Bazkundean egin dira eta hiru orduz enpresa eta lan munduko errealitatea erakutsi zaie, ikusentzunezko euskarriak erabiliz eta talde lana bultzatuz ikasleen parte hartzearekin.

Jardunaldiak oso era positiboan baloratu dituzte bertan parte hartu duten irakasle eta ikasleek. Jardunaldien bataz besteko nota orokorra 9koa izan da.
ENPRESTATZEN Gipuzkoako Bazkundeak garatutako ekimena da, unibertsitatez kanpoko ikasleei zuzendua dago, zentru publiko eta pribatutakoei (14 eta 20 urte). DBHko, Batxilergoko eta Erdi eta Goi Mailako formakuntzako zikloko ikasleek enpresekin izango duten lehen harremana izan da.

ENPRESTATZEN proiektuaren helburua ikasleen artean inguruko errealitate sozio-ekonomiko zein den islatzea da. Ekintza parte-hartzaile desberdinen bitartez. 14 eta 16 urteko ikasleek enpresa eta lan arloaren egungo errealitatea ezagutuko dute, herrialde baten benetazko

errealitatea sozio-ekonomikoa islatzen den gunea baita hori. 16 eta 20 urteko gazteei zuzendutako jardunaldietan berriz, globalizazioa eta motibazioa bezalako kontzeptuak argituko dira, talde lana, ekintzailetasuna, lan orientazioa, ikasketak eta adierazteko erak sustatuz.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***
Irune Bengoetxea
ibengoetxea@camaragipuzkoa.com
Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347